**2020ko urtarrilaren 29eko OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA**
**HASIERA ORDUA: 20:03**
**BUKAERA ORDUA: 20:45**

**Bertaratutakoak:**

1.- Leixuri Arrizabalaga Arruza.
2.- Onintze Amezaga Bilbao.
3.- Aitor Arteta Sertutxa.
4.- Nekane Garmendia Sertutxa.
5.- Jon Ander Bilbao Latxaga
6.- Alberto Hernandez Dominguez
7.- Iñaki Mendizabal Ibarrondo
8.-Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea.

**Ez da bertaratu:**
Amaia Otazua Sanchez

**Idazkaria:** Iker Jaka Arratibel.

**1.-2019eko abenduaren 18eko akta onartzea hala badagokio**

Ez dute ezer esateko beraz onartzen dira.

**2.-Alkatetza dekretuen kontu ematea.**

| | | |
|---|---|---|
| 297/2019 | **03/12/2019** | F.E.S jaunari ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela emateko dekretoa |
| 298/2019 | **03/12/2019** | Resitxu puzgarriak gabonetako parkea kontratazioa |
| 299/2019 | **03/12/2019** | M.A.C.P.ri abenduaren 28an Urondoko txokoa bazkari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 300/2019 | **03/12/2019** | I.M.Z.ri abenduaren 31an Urondoko txokoa afari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 301/2019 | **04/12/2019** | L.A.M.ri abenduaren 7an Urondoko txokoa bazkari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 302/2019 | **05/12/2019** | F.P.Tenak eginiko kalteordain erreklamazio eskaerari baietza emoteko dekretoa eta kalteordaina ordaintzeko agindua |
| 303/2019 | **05/12/2019** | Lanbide eta Behargintza mungiagaz elkarkidetzan pertsona bat kontratatzeko dekretoa brigadakoei laguntza egiteko. |

| | | |
|---|---|---|
| 304/2019 | **05/12/2019** | 16 Eguzki Farola Philips erosketa. Innelco Kontratu txikia |
| 305/2019 | **05/12/2019** | Quincocanek 120 katu esterilizatzeko kontratua.Kontratu txikia |
| 306/2019 | **05/12/2019** | Makinaria erosketa. Kontratu txikia. Agrojardin Astikene SL |
| 307/2019 | **11/12/2019** | E.G.B.jaunari Sertutxa auzoko 58 zenbakidun etxean duen lurzailaren itxia aldatzeko baimenduz |
| 308/2019 | **11/12/2019** | L.A.M.ri abenduaren 15ean Urondoko txokoa bazkari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 309/2019 | **11/12/2019** | J.P.G.ri abenduaren 22an Urondoko txokoa bazkari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 310/2019 | **11/12/2019** | E.B.T.ri urtarrilaren 1ean Urondoko txokoa bazkari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 311/2019 | **16/12/2019** | M.O.M-ri Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zergaren likidazioa onartzeko dekretoa |
| 312/2019 | **16/12/2019** | Quincocaneri Txakur bilketa zerbitzu lizitazioa esleitzeko dekretoa |
| 313/2019 | **17/12/2019** | Ezkontzak baimentzeko gainontzeko zinegotzietan delegatzeko dekretoa |
| 314/2019 | **17/12/2019** | E.O.A.ri abenduaren 18an Urondoko txokoa bazkari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko. |
| 315/2019 | **20/12/2019** | Jubilatuen etxeko eta frontoiko bainugeleen erreforma obra construcciones Landabururi esleitzeko dekretoa. Kontratu txikia. |
| 316/2019 | **23/12/2019** | Hurrengoko fakturak onartzen dira. |
| 317/2019 | **30/12/2019** | Rover 25 txuria ibilgailu abandonatuari Hiri Hondakin Solido tratamendua emoteko eta hiri hondakinen tratamenduen zentro batera eramateko dekretoa |
| 318/2019 | **30/12/2019** | A.H.L-ri Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zerga likidatzeko dekretoa |
| 319/2019 | **30/12/2019** | Kreditu aldaketa onartzen da. |
| **2020/01** | 02/01/2018 | 2020ko aurrekontuaren luzapena onartzen da. |
| **2020/02** | 02/01/2020 | Eibex enpresarekin egin beharreko kontratu txikia aholkularitza ekonomiko presupuestarioa urtarrila eta otsailerako |
| **2020/03** | 02/01/2020 | Artepe Pilota Klubari 2020ko urtarrila, otsaila,martxoa, apirila, maiatza eta ekainean pala ikastaroen emanaldia esleitzeko dekreto. |
| **2020/04** | 02/01/2020 | A.H.L-andrearen Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Zergaren dekretoa salmenta batengatik. |
| **2020/05** | 03/01/2020 | M.F.D.eri ate bat jartze obrak egiteko lizentzia emoteko. |
| **2020/06** | 09/01/2020 | A.E.L.ri urtarrilaren 17an bazkari bat egiteko Urondoko txokoa erabiltzeko baimena emoteko. |

| | | |
|---|---|---|
| **2020/07** | 09/01/2020 | J.K.A.B.ri baserriaren atzeko aldean espaloi bat eraikitzeko lizentzia emoteko. |
| **2020/08** | 09/01/2020 | J.D.S.ri eguneko txakurdegi bat jartzeko lizentzia emoteko. |
| **2020/09** | 13/01/2020 | S.M.F.eri urtarrilaren 25ean afari bat egiteko Urondoko txokoa erabiltzeko baimena emoteko. |

Leixurik dio Informazio Batzordean kontu eman zala dekretoei buruz.

Gainontzeko kideek ez dute galderarik.

**3.-Bake Epaile titularraren izendapena.**

Informazio Batzordeko dikatmena kontuan hartuta Alejandro Olano Ereñozaga jauna Bake Epaile titularra izendatzea proposatzen da.

Bozkatzen da eta hau da emaitza:

BILDU (1) bai

GTI (2) bai

EAJ (5) bai

Beraz, aho batez onartzen da:

Idazkariak dio izendatze proposamen akordio hau Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiari bidaliko zaiola.

**4.-Jabari publikoan terrazak ipintzea arautuko duen ordenantza hasierakoz onartzea hala badagokio.**

Leixurik dio honen inguruan hainbat batzorde daramatzagula hau lantzean, hau da, herrian terrazak ipintzea arautuko duen ordenantza bat. Partehartzen prozesu bate gin eta alderdi politikoek ekarpen ezberdiñak egin dituzte eta honen inguruan ere diktaminatu egin da.

Diktamena hau egon zan:

*“Udalak komenigarria ikusten du lurzoru publikoan ezartzen diren terrazek araudia edukitea orain arte egon da erregulazio gabezia ekiditeko asmoz. Herriko merkatariek ere arauketa hau egin dadin eskatu dute.*

***Diktaminatzen da eta hau da emaitza:***

*Bildu (2) bai*

*EAJ  (5) bai*

*GTI (2) abstentzioa*

***Diktamena:***

*Aldekoa "*

Ondoren gaiaren inguruan bozketa ematen da eta hau da emaitza:

**Aldeko botoak:**

EAJ/PNV (5))

**Abstentzioa:**

BILDU  (1)
GTI      (2)
Beraz, bertaratuek EAJ-PNVren aldeko botoekin hurrengoa onartzen da:

**Lehenengoa.-** Jabari publikoan terrazak ipintzea arautuko duen ordenantza hasierakoz onartzea.

**Bigarrengoa.-** Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzea 30 lanegunez jendaurrean egon dadin. Behin epea igarota erreklamaziorik ez balego behin betikotzat onartua emango da orain arte behin behinekoz onartuta zegoena.

Albertok dio eurak nahiz eta bere momentuan diktamenaren alde agertu egindako kontsultaren arabera badauzkagu badituztela  zalantza batzuk eta aldeko botorik ezin dutela eman horri.

14. puntuari dagokionez terrazak finkoak izan daitezkela aipatzen danean plaza zulatu egingo den edo bestelako alternatiba baten bitartez ezarri daitekeen galdetzen du. Hau da, plazako espazioa okupatuko duen denbora baterako edota egunero batuko behar al duen.

Leixurik erantzuten deutso jartzen dana egonkorra edo finkoa izan behar dela haizeak ez botatzeko eta egunero ez du desmontau behar baina hori bai terraza desmontablea izan behar da.

Albertok 16. artikuluari buruz espaloiak aipatzen diren plaza espaloiak ez daudela adierazten du eta zeri esaten zaion espaloia galdetzen du.

Aterpe azpian dagoen guzti hori espaloia kontsideratzen dela dio Leixurik edo eskilletarako bidea edo rampetarako bidea, horretaz hari gara,gainera irrisgarritasun arauak errespetatu behar dira.

Gero Albertok gauzak finkoak ipintzean plazan ea plazaren erabilerarekin talka egiten al duen galdetzen du. Umeak futbolean jokatzearen adibidea ipintzen du.

Leixurik erantzuten deutso umeak jarraitu dezaketeela futbolera jokatzen apur bat haratago baina jendeak ezin dezakeela pasatu oinez.

Gero Albertok galdetzen du ea plaza erdian gauza finkoak ipintzea ordenantzaren baldintzak beteko al lituzkeen.

Leixurik erantzuten deutso ezetz. Ranpatik jeisten denean ez duela pasoa bermatzen.

**5- Animaliak bide publikoak jasotzeko zerbitzu publikoagatiko tasak arautzepen dituen ordenantza.**

Leixurik dio kasu honetan ere bai ordenantza berria izango litzatekeela. Udalak badauka kalean dauden txakurrak jasotzeko empresa bat kontratatuta baina batzuk ez dira abandonatutakoak zeren eta jabeak dituzte eta ordenantza honen bitartez arautu nahi da jabeei egoztea empresak udalari fakturatzen dion % 80a.

Informazio batzordean ere landu zen gai hau eta hau izan zen diktamena:

"***ZIOEN AZALPENA:***

*Udalak txakurren eta etxe-katueen jabeei kobratu nahi die euren animaliak batzeagatik empresak udalari kobratzen dion %80-a. Horretarako, hau arautu behar duen ordenantza fiskal bat arautu behar da.*

***Diktaminatzen da eta hau da emaitza:***

*Bildu (2) bai*

*EAJ (5) bai*

*GTI (2) abstentzioa*

***Diktamena:***

*Aldekoa*

*PRESIDENTEAK"*

Bozkatzen da eta hau da emaitza:

Aldeko botoak:

Bildu (1) bai
GTI (1) bai (Iñaki Mendizabal Ibarrondo)
EAJ (5) bai

Abstentzioa:

GTI (1) Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea.

Beraz, bertaratuek EAJ-PNVren, Bilduren eta GTIko baten aldeko botoekin hurrengoa onartzen dute:

**Lehenengoa.-** Animaliak bide publikotik jasotzeko zerbitzu publikoagatiko tasak araupetzen dituen ordenantza hasierakoz onartzea.

**Bigarrengoa.-** Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzea 15 lanegunez jendaurrean egon dadin. Behin epea igarota erreklamaziorik ez balego behin betikotzat onartua emango da orain arte behin behinekoz onartuta zegoena.

**6- Eskaerak eta galderak.**

Ez ziren egin.